



Gure Esku Dago aurkeztuko dute gaur

Erabakitzeko eskubidearen alde lanean ari den dinamika herritarra da Gure Esku Dago. 11:00etan izango da aurkezpena Biterin.

EUSKAL Herriaren erabakitzeko eskubidearen alde lanean ari da Gure Esku Dago dinamika herritarra eta berau aurkeztuko dute gaur Hernanin. Goizeko 11:00etan izango da Biterin. Dinamikaren hasierako helburua da, herri aktibazioa eta babesaren lortzea euskaldunen erabakitzearen eskubidearen alde. Dinamika honek argi dauka: «Nazioa gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarron garaia da». /2



Elurrik ez teilatuan, baina Gabon giroa bai Milagrosan

NEGUA izan arren, uda girotik gehiago izan zuen atzoko eguraldiak. Hala ere, Gabon giro ederra jarri zuten atzo Milagrosan Musika Eskolako txistulariek eta Dakapo abesbatzak. Iñaki Eguren eta Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean, Gabonetako 14 abesti eskaini zituzten: *Ai! Hau gauaren, Elurra teilatuan, Dios te salve, Olentzero...* Herritar ugari gerturatu zen kontzertuaz gozatzeraz. II

◆ IGERIKETA

Hernani Saria, gaur

Hernani Saria jokatu da gaur igerilekuan (09:30). /7

❖ ENPLEGU GUNEA

Lana bilatzeko proiektu berria

Langabetuentzako proiektu berria jarriko da martxan urtarrilaren 13tik aurrera. Izena eman behar da. /3

◆ TXANTXANGORRI

Lau egun, argazkiak bidaltzeko

Txantxangorriko Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko, asteartean bukatuko da epea. /2

❖ BERRIAK-KRONIKA

Sarituak: 0080 eta 1212

Gabonetako bi saski zozketatu dira berriz. Saritutako zenbakiak: 0080 eta 1212. /3

◆ ESKUBALDIA

Ate irekiak, bihar

Eskubaloi taldeak ate irekiak antolatu ditu gazteentzat eta bihar izango da azken saioa. Garai bateko Hernaniko taldeko jokalariek entrenatzeko aukera izango dute. /6

GAUR KRONIKAN

LABURRAK: Martutenera marbxa, zinea, etxebizitza... /2

Fotonotizia: Bertsolata /2

Jasota Bezala: 'Libre epaiketa politikorik ez!' /3

Kirolak: pala, esku pelota, eskubaloia, San Silvestre... /6-7

Eskelak /7

Elorrabiko zubi berria /8

Cenor BALANTXA

ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun
elektrogailu
guztiak ditugu!!

NAGUSIA,17
943 33 40 22

Ez joan urrutira!
Prezio onak eta aukera handia hemen gertu.

**GAUR LARUNBATA
ARRATSALDEZ
IREKITA!**



**AITAN - ETXE
TABERNA**

Larramendi,15
943 55 00 46



**ESTEBURUETAN
AFARIK**

**ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A**

**Urtarrilaren Gan
ZABALIK**

Bisitza ezazu gure webgune berria
www.erioguardaenea.com

Hurriaga kalea,10. Hernani
Tel:(943) 33 02 91

GURE ESKU DAGO

«Nazioa gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarren garaia da»

Gure Esku Dago dinamika aurkeztuko dute gaur Biterin, 11:00etan. Erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten ari den herri dinamika da. Herri aktibazioa eta babesa lortzea du, hasierako helburua.

GURE Esku Dago dinamika aurkezpena izango da gaur Hernanin. Goizeko 11:00etan izango da Biterin. Gure Esku Dago, dinamika herritarra da, erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten ari den dinamika. Halaxe dio: «Nazioa gara, erabakitze esku-

bidea dugu, herritarren garaia da».

Eta hasierako helburu du, herri aktibazioa eta babesa lortzea euskaldunen erabakitzaren eskubidearen alde. Anitza eta parte hartzailea izango dela ere azaldu dute, «tokian tokiko ekimenei irekia».

Zergatik?

Dinamika hau sortzearen arrazoia ere azaldu dute: «Erabakitze eskubidea, Euskal Herrian bizi den gatazka politikoaren iturburu da. Aldarrikapen prepolitikoa da, oinarri demokratiko bat sortzearen alde. Agenda politikoan eta sozialean eten gabe

egon da: 1978ko Aberri Egunean, Gasteizko Legebiltzarrean 1990ean, Lizarra-Garaziren dokumentuaren erreferentzian, Loiolako elkarrizketetan, Aieteko Deklarazioaren laugarren puntuan... Erabakitze eskubidea nazioarteko legegian jasotako eskubide demokratiko unibertsala da».

Jendartean dagoen beharrari aukera eman

Jendartean dagoen beharrari aukera eman nahi dio dinamika eta herritarrak abian jarri, erabakitze eskubidea gauzatzeko. Gehiengo sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak landuko dituzte. ||

TXANTXANGORRI - I. ARGAZKI LEHIAKETA

Ehiza, arrantza edo tiroari buruzko argazki onenen bila

Argazki Lehiaketa antolatu du Txantxangorri elkarteak eta astearte da argazkiak entregatzeko azken eguna.

TXANTXANGORRI elkarteak Argazki Lehiaketa antolatu du aurreneko aldiz. Ehiza, arrantza eta tiroa da jarri duten gaia eta ekintza horiekin lotutako argazkiak hartuko dituzte kontuan saridunak erabakitzeko. Nahi duten herritar guztiek hartu dezakete parte. Lanak entre-

gatzeko, lau eguneko epea besterik ez da geratzen. Azken eguna, astearte da.

3 maila izango dira lehiaketan

Lehiaketa 3 mailatan banatuko da. Alde batetik, 14 urtera artekoen artean aukeratu da argazkirik onena; bestetik, 14 urtetik

gorakoen artean; eta azkenik, argazkirik herrikoiena.

Emaitza bidali behar dira argazkiak

Argazkiak emaitza bidali behar dira, ondoko helbidera: info@txantxangorri.com. Lehiaketaren oinarriak web orri honetan ikusi daitezke: www.txantxangorri.com. ||

❖ BERTSOLATA



Alberdi eta Egaña, Sarasuaren errelatoari segika

Espero bezala, saio berezia izan zen Kafkaren aulkia emanaldiak eskainitakoa. Bertsoak eta literaturak bat egin zuten Biterin. Jon Sarasua bere liburuan argitaratu gabe utzitako gogoetei buruz aritu zen eta Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek gai horiei buruz kantatu zuten. Herritar ugari gerturatu zen emanaldiaz gozatzera. Bertsolataren barruan antolatutako emanaldia izan zen eta hurrengo ekimena, Urteharretako erronda izango da, 18:00etan abiatuko dira. Urtarrilaren 3an, berriz, bertso jaialdia antolatu dute. Bertan, txapelketa nagusian aritu diren sei bertsolarik kantatuko dute, 19:30etan Biterin. Azken sarrerak salgai daude Triponzti, Aralar eta Kixkalen, 6 euroan. ||

❖ PRESO ETA IHESLARIAK

Martutenera martxa, gaur

Urtero bezala, Martuteneko espetxera martxa antolatu dute gaur, preso eta iheslarien eskubideen alde. Zinkoeneatik 10:45etan abiatuko dira, Astigarragako poligonotik 11:30etan, eta 12:30ak aldera iritsiko dira espetxera. *Sevilla II* SOS lemapean antolatu dute aurtengo martxa. ||

❖ ZINEA

'Jelly T: Tarzan eskasa' eta 'Mount St Elias' ikusgai, asteburuan

Zine emanaldia izango da asteburuan Biterin. Gaztetxoentzat, *Jelly T: Tarzan eskasa* izango da ikusgai gaur eta bihar (16:30). Helduentzako, berriz, *Mount St Elias* emango dute gaur (19:30 eta 22:30) eta bihar (19:30). ||

❖ AMHER

Kontsultarik ez da izango, urtarrilera arte

AMHERek jakinarazi duenez, ez dute kontsultarik egingo urtarrilaren 13ko arratsaldera arte. Informaziorako: 943 33 60 71. ||

❖ ETXEBIZITZA

Karabelgo babes ofizialeko etxeetarako, izen ematea zabalik

Karabelen babes ofizialeko 72 etxebizitza egingo dituzte eta zozketan parte hartu nahi dutenek zabalik dute izen ematea. Astelehenean bukatuko da epea. Prozeduran parte hartzeko etxebiden izena eman da egon behar da eta eskaera idatzia sinatu, eta bidali. Informazio gehiago: 943 46 20 86 edo ventas@oraune.com. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Saritutako errifa: 07857

San Joan Konpartsaren Gabonetako zozketan, honakoa izan da zenbaki sariduna: 07857. Irabazleak urtarrilaren 21a baino lehen deitu behar du: 695 753 138. ||

❖ ERAKUSKETA

Iker Valleren lanak, Paun eta Donostian

Iker Vallek bi erakusketa ditu ikusgai. Alde batetik, Pauko GSN arte galerian jarri du erakusketa, urtarrilaren 11ra arte. Bestetik, Donostiako Okendo kultur etxean jarri ditu lanak ikusgai: Ebakidurak eta josturak. Urtarrilaren 24ra arte izango da. Orduetgia: asteleheneetik ostiralera, 10:00-14:00 eta 16:00-20:30; eta larunbatetan, 10:00-14:00 eta 16:30-20:00. ||

ENPLEGU GUNEA

Lana bilatzeko proiektu berri bat jarriko da martxan urtarrilean

Urtarrilaren 13tik otsailaren 24ra izango dira saioak, astelehen goizetan. Helburua da, pertsonaren motibazioan eta jardueran eragitea eta norbera izatea ardatza lana lortzeko prozesuan. Lankidetzan, talde lana, inizatiba... landuko dira. Izen ematea, zabalik dago.

LANGABETUEI zuzendutako proiektu berri bat jarriko dute martxan Hernaniko Enplegu Gunean. Lana bilatzen laguntzeko proiektua da eta urtarrilaren 13tik otsailaren 24ra izango da, astelehenero. Orduetgia: 09:15-11:15. Proiektu berri hau ere, dohainik izango da.

Konpetentzia ugari landuz
Proiektu honen helburua da talde koordinatuak sortzea. Modu horretan, elkarlana bultzatuko baita lana bilatzeko prozesuan. Pertsonen motibazioan eta jardueran ere eragin nahi da eta lortu nahi da norbera izatea ardatza lana lortzeko prozesuan. Aldi berean, honako konpetentziak landuko dituzte: lankidetzan, parte hartzea, talde lana, inizatiba, antolaketa eta plangintza; «hau da, gaur egungo enpresa-kulturaren behar beharrezkoak diren konpetentziak», azpimarratu dute.

Egoera berdina bizi dutenei laguntza
Garatuko dituzte ekintzen

Taldea, adin eta lan eskarmentu ezberdina duten pertsonen osatuko da eta funtsezkoa izango da lana bilatzeko gogoia indartu nahi izatea eta besteei laguntzeko prest egotea.

bitartez, integrazioa landuko da taldean, autoestimua berreskuratuz, ekintza zehatzak egiteko eguna antolatuz eta egoera berdina edo antzekoa bizi dutenei laguntza eskainiz.

Taldea, adin eta lan-eskarmentu ezberdina duten pertsonen osatuko da eta funtsezkoa izango da lana bilatzeko gogoia indartu nahi izatea eta besteei laguntzeko prest egotea.

Hasteko, aurkezpena

Sei saio izango dira denera eta aurrenekoan, urtarrilaren 13an, aurkezpena egingo da. Bakoitzaren gaitasuna, jarrera eta trebetasunak aztertu eta helburuak zehaztuko dira. Horrez gain: motibazioa eta laguntza eman, agenda erabiltzen ikasi, prentsa irakurri...

Bigarren, aurrekoari jarraipena eman

Bigarren saioa urtarrilaren 20an izango da eta bertan jarraipena emango zaio aurreneko saioari. Agenda erabiltzen ikasiko dute parte hartzaileek eta prentsa ikuspegi kritikoarekin irakurriko dute.

Hirugarren, CV eta aurkezpen gutuna idatzi

Urtarrilaren 27an izango da hirugarren saioa eta posta elektronikoen garrantzia landuko da. Curriculum Vitae eta aurkezpen gutuna ere idatziko dute. Horrez gain, agenda nola erabili ikasten jarraituko dute eta prentsa irakurtzen.

Laugarren, sakontzen

Gehiago sakonduz, aurreko hiru saioetan landutakoari jarraipena emango diote laugarren saioan. Otsailaren 10ean izango da.

Bosgarren, informatika eta internet tresnak erabili

Egunkarietako berriak ikuspegi kritikoarekin irakurtzeaz gain, aztertu eta ikertu egingo dituzte bosgarren saioan, otsailaren 17an. Eta informatika eta internet tresnak erabiliko dituzte ikerketa aurrera eramateko.

Bukatzeko, balorazioa

Seigarren eta azken saioan aurreko saioetan egindakoarekin jarraituko dute eta bukaeran, balorazio bat egingo dute. Otsailaren 24an izango da hori.

Aurrez, izena eman

Parte hartu nahi dutenek, aurrez izena eman behar dute. Horretarako, bi modu: *marijo-m@hernani.net*, 943 33 68 02 (Marijo); edo bestela, *jaioea@daiteke.com*, 943 57 54 24 (Jaione). ■

BERRIAK ELKARTEA ETA HERNANIKO KRONIKA

Saritutako zenbaki berriak: 0080 eta 1212

Berriak-Kronikako Gabonetako bi saskiren irabazleak ez ziren azaldu eta atzo berriz egin zen zozketa. Irabazle berriek astebeteko tartea izango dute orain.

BERRIAK elkarteak eta Hernaniko Kronikak elkarlanean, Gabonetako lau saski zozketatu zituzten abenduaren 20an. Irabazleek, astebeteko epea zuten saskia erreklamatzeko eta horietako bi ez zirenez azaldu, atzo berriz zozketatu ziren bi saski horiek. Saritutako zenbaki berriak, honakoak: 0080 eta 1212. Aurrenekoa Mariscos Hernanin saldua da eta bigarrena Kronikan. Irabazle berriek astebeteko tartea izango dute saskia jasotzeko, hau da, urtarrilaren 3ra bitarte. Bestela, azken zozketa bat egingo litzateke, Kronikan entregatzen diren errifa guztien artean. ■



Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

LIBRE EPAIKETA POLITIKORIK EZ!!!

«Gehien maite ditugunak etxean utzita bagoaz Madrilera...», «...egoera politiko berria ireki denean, erasoek jarraitzen dute eta ondorioz, sufrimendua ere bai, horren lekuko epaituak izango garen ia 80 gazte eta ez hain gazteren senitarteko eta lagunak...», «Epaiketa hauek ez dute inoiz logikarik izan, eta orain are eta gutxiago. Ez da jendea epaitzeko garaia, presoak etxera ekartzeko garaia baizik...».

Hitz horiekin hasten zen bi epaiketen inguruan astero idazten dituzten kroniken lehenengo kronika. Askotan aipatu eta salatu izan da epaiketa politiko hauek, egungo garai politiko hauetan lekurik ez daukatela, eskubide zibil eta politikoak praktikan jartzeagatik epaituak izaten ari direla...

Askotan aipatzen ez dena ordea, epaiketa hauek dakarten karga emozional, psikologiko eta ekonomikoa da.

Hilabete luzez, bi makro-epaiketa hauek, astero Madrilera joan beharrak gehitutako zigorra suposatzen dute bere baitan. Orain arteko atxiloketa, kartzeleatze, fidantza eta pasatako urteez gain, orain epaiketa bera gehitu behar zaio. Lan eta ikasketa galerak, familiarik urruntzea, bidaiatzea, egonaldi gastuak, guzti horrek presio ekonomiko izugarria suposatzen du.

Arlo ekonomikoari dagokionez, urrian hasitako bi auzitako kideek, dagoeneko 1.700.000€ fidantzatan jarrita dauzkate. Madrilera joan behar duten bakoitzean, 80 pertsona mugitzeko furgonetak alokatu, alojamentu gastuak, otorduak, abokatuak... ordaindu beharrean aurkitzen dira. Guztia kontuan hartuta, bi auzietako aurrekontuak 1.000.000 eurokoa da. Eta ezin ahaztu, noski, guzti honetan, 110 kultur elkarte desjabetzeko arriskuan daudela, eta horrek, herriko taberna askoren itxiera ekarriko lukeela.

Guzti hau kontutan hartuta, Libre Dinamika martxan dago Euskal Herri osoan, eta herri herri ekimen desberdinak antolatzen ari dira eraso hauek salatzen. Baina baita ere, hori bezain garrantzitsua den arlo ekonomikoa lantzeko. Kontu korrante hau zabaldu dugu gastuei aurre egiteko.

3035 0083 24 0830120459

Hernaniar guztiei aipatutako ekimenetan parte hartzeko deia egiten dizuegu, eta abenduaren 31ean kalera atera eta antolatzen diren ekintzetan parte hartzera gonbidatu, laranjaz!

Zure laguntzarekin LIBREAgoak izango garelakoan,

Iñaki Alberdi Padrones

DANIEL PERAL PERAL - ALBOKA ETA ARRABITA EGILEA

«Neri ere kosta egiten zait hau guztia egin dudala sinestea»

Eskuak ondo asko zaildutako gizona da Daniel Peral Peral. Kantabrian jaio zen duela 78 urte, baina Gipuzkoan daramatza azken 50 urteak. Forja astuneko maisua da, eta lan horretarako etorri zen Hernanira; Orbegozora.

Herrimina zela-eta, ordea, beste eskulan batzuetan hasi zen: soinu-tresnak egiten. 63an ekin zion lanari. Orduetik, harizko eta bestelako 500 tresna baino gehiago, eta 60tik gora alboka egin ditu Larramendi kaleko tailertxo eta museoan.

Leire Goñi

«BADA sinestu ere egiten ez didan jendea, eta normala da, neri ere kosta egiten baitzait askotan, hau guztia neronek egin dudala sinestea. Bizi osoko lana dago hemen!».

Ez dio gezurrik Daniel Peralek. Larramendi kalean duen erdi tailer erdi museoan sartu, eta ez da txoko txiki bat bera ere libre ikusten. Han hemenka ditu zintzilik arrabitek, albokak eta *albugueak*, ogi-flauta edo artzain-flautak, zanfoniak, sistroak, *launnedak*, txaramela edo goilareak, sareca errusiarra... Guztira, hari-igurtziko eta bestelako 500 tresna baino gehiago eta 60tik gora alboka egin ditu azken 50 urteetan.

Herriminari aurre eginez

Villanueva de la Peñan (Palentzia) jaio zen Daniel Peral Peral duela 78 urte. Baina txikitatik Reinosan (Kantabria) bizi izan zen. Forja astuneko maisu izan da urtetan, eta lan horrek, hain zuzen, ekarri zuen Hernanira. «Abenduaren 9an bete ziren 50 urte Hernanira etorri nintzela. 28 urte nituen orduan, eta Orbegozon lan egitera etorri nintzen. Gero ezkondu eta...».

Erraz moldatu zen Peral hemengo bizimodura, baina ez zuen sekula sorlekua ahaztu. Txikitako oroitzapenei tiraka, etorritako urtean bertan ekin zion soinu-tresnak egiteari. «63 edo 64an egin nuen nire lehenengo arrabita, pinu eta kobrezkoa. Oso kuttuna dudan beste bat da indigaztain egurrezkoa, pieza bakarrekoa, Konpostelako eliz atariko irudian agertzen denaren kopia. Ereduren bat hartzen dut, baina nire pieza guztiak originalak dira. Disko astrolatikoa ere egin nion, hau da, antzinako



Daniel Peralek 60tik gora alboka eta harizko eta bestelako 500 tresna egin ditu 50 urtetan: arrabitek, ogi-flautak, sistroak, zanfoniak, txaramelak...

«Beira-putzegileekin lotura du albokak; haiek ere arnasketa jarraitua egiten jakin behar zuten pieza politak osatzeko».

«Makinek esklabizatu egiten gaituzte; halaxe dago artisautza».

kantabriarrek eguzkia gurtzeko sortutako ikurra, hemengo lauburuaren tankerakoa. Izan ere, euskaldunak eta kantabriarrek lehengusuak gara! Azkenik, beti jartzen ditut nire inzialak; DP. Eta guztia egiteko 3-4 makinarekin moldatzen naiz. Izan ere, makinek esklabizatu egin gaituzte. Halaxe dago artisautza! Askok komertziantze huts bihurtu dira...».



Xumea da Peralen tailerra, 3-4 makina besterik ez baititu erabiltzen: kaladora, lijadora, taladro eta tornua.



Arrabidak eta albokak egiten ditu, batez ere, Daniel Peralek. Bi fita (hotsa ateratzeko), bi tutu (nahi diren notak jotzeko), uztarrria (tutuak heltzeko) eta bi adar (hotsa haunditzeko) behar dira alboka egiteko. Arrabita, berriz, askotan egur pieza bakarretik ateratzen du. Tresna guztiei jartzen die DP marka; Daniel Peral, alegia.

Egile eta jotzaile

Txikitako oroitzapenak, ordea, ez dira tresnaren itxura gogoratzera mugatzen. Hala, egile izateaz gain, jotzaile ere bada Peral. «Elurte haundiak izaten genituen, eta bizilagun baten etxetik bestearenera joanez pasatzen genuen denbora. Horietako bat azken arrabita jotzailea nuen: Antonio Lope Morante, *Lin el airoso*. Orduan entzundakotik eta nire aitarengandik ikasitako bertso eta doinuetatik datorkit afizioa. Trobadore lana ere ondo ikasia dut! Inprobisazioa argitasuna duenaren ukitua da».

Eta baita ikertzailea ere

Lehenengo arrabita horiek ez ziren izan egindako tresna bakarrak. Hemen ezagutu zuen alboka, eta hau egiten ere hasi zen, 1964ean bertan. Gero, 1984ean-edo, 54 bat urterekin jubilazioa hartu zuen, Orbeozoko birmoldaketa zela-eta. Orduan, buru-belarri hasi zen tailerrean lanean eta ikertzen: egunero 6-8 ordu inguru.

«Cervantesek dagoeneko aipatzen zuen *albogue* tresna Kixoten».

«Inprobisazioa argitasuna duenaren ukitua da».

«Hernanin moztu diren zuhaitz gehienen egurrarekin egin dut tresnaren bat edo beste».

Horren erakusgarri dira eskuz idatzita dituen lauzpabost liburuak. Horietako batean, egindako tresna bakoitzaren erregistroa bildu du: noiz, eta zein tresna eta materialekin egindakoa den. «Herrian moztu diren zuhaitz gehienen egurrarekin egin dut tresnaren bat edo beste!» Beste batzuetan, berriz, albokaren jatorriaz jardun du: «Cervantesek dagoeneko aipatzen zuen *albogue* Kixoten. Alboka euskalduna da, noski, hemen mantendu delako, baina penintsulako hainbat lekutan joko zen: beira-putzegileekin lotura du,

adibidez; haiek ere arnasketa jarraitua egiten jakin behar baitzuten pieza politak osatzeko. Nik uste arabiarrek ekarria dela, arrabita bera bezala. *Alboguearen* adarrak zuzenagoak ziren, eta Euskal Herrian kurba haundiagokoak erabili dira, baina antzekoak dira».

Hariari tiraka nola jarraitu?

Egindako lanari jarraipena nola eman kezkatzen du orain Peral. Juan Mari Beltranekin ikasi zuen alboka jotzen bi urtez, Hernaniko Musika Eskolan, baina gainontzean, tresnak egiten, haien inguruan



ikertzen eta tresna horiek jotzen bere kabuz ikasi du, eta ez du nahi egindako lana galtzerik. «Horixe esaten dit lagun batek: "Daniel! Hau guztia ezagutzera eman behar duzu zurekin galtzea nahi ez baduzu!". Arrabita jotzen eta erroman-

tzeak kantatzen erakutsiko nuke, baina ez dakit... Eta Miranda de Ergako beste museoarekin zer egin! Saldu, ez dut ezer saltzen, baina ez dadila galdu! Mila ofizio dituen ez da dirudun egingo, baina bai aberats!».



Hernaniko jokalaria ohia izango dira biharko saioan. Argazkian, garai bateko Langile taldea: Nerea Goikoetxea, Eli Igarritz, Marta Igarritz, Sofia Ojuel, Nuria Seco, Ana Igarritz, Amaia Fernandez Zubeldia and Pilar Azurmendi. EGILEA: XABIER ALLUR.

HERNANIKO ESKUBALOI TALDEA

Hernaniko jokalaria ohien txanda bihar, ate irekietako azkeneko saioan

Bi saio izango dira bihar: 12 eta 14 urte bitarteko neska-mutilena lehendabizi, 10:00etatik 11:30etara; eta txikiena ondoren, 11:30etatik 13:00etara.

SEKULAKO arrakasta izan dute eskubaloi taldeak antolatutako ate irekien jardunaldiek. Hiru saio eginak dira dagoeneko, eta ehundik gora neska-mutil elkartu dira, eskubaloia ezagutu eta probatzeko gogoz. Izandako harriera eta gero, azken saio bat antolatzea erabaki du eskubaloi taldeak. Orain artekoak baino luzexegoa eta bereziagoa izango da.

Hernaniko eskubaloieran parte izan zirenekin saioa, bihar

Izen haundiko jokalaria, tekniko eta epaileak pasa dira azken asteetan kiroldegitik. Azken saio honetan ordea, Hernaniko taldeak izan zuen eta oraindik mantentzen duen nortasuna erakutsi nahi diete neska-mutilei. Hori horrela, klubeko kide izan diren izen haundiak izango dira bihar, Kiroldegian: Mainer Tolosa, Olatz Ibarzabal, Eli Igarritz, Juan Luis Gato, Alvaro Rezusta, Jon Mutiloa, Josetxo Redondo, Juan Luis Goikoetxea...: «hauetako eskerrak eman nahi dizkiegu, eta baita noizbait klubeko kide izan ziren guztiei ere».

«Guraso, familia, lagun eta gerturatzen diren guztiek gure lan egiteko modua ezagutzea nahi dugu, gu ezagutzea, eta proiektua aurrera eramateko jarri dugun mimo guztia jaso eta ikustea»

Gazteak, lehendabizi

Berriak eta orain arteko ate irekietan ibilitako gazteak elkartuko dira bihar Kiroldegian. Hori horrela eta plus bat emateko gogoz, saio berezia antolatu dute bereziki 12 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta. 10:00etatik 11:30etara izango da, eta ohiko entrenamenduaz gain, partidutxo bat jokatzekoak ere badira. Hernaniko eskubaloi taldeko jokalaria ohiekin ariko dira, eta hauen laguntza eta esperientzia jasoko dute, azken saio honetan.

Txikienen txanda, ondoren

Herriko txikienen txanda

izango da ondoren. 11:30etatik 13:00etara. Jokoak eta bestelako teknika saioak jasoko dituzte neska-mutil hauek azken saio honetan.

«Gure lana egiteko modua ezagutzea nahi dugu»

Ate irekietako saio bat baina zerbait gehiago izatea nahi dute biharkoa. Hori horrela, eskubaloi taldetik diote, biharko helburua ez dela soilik eskubaloia ezagutaraztea eta neska-mutilek jolastea: «guraso, familia, lagun eta gerturatzen diren guztiek gure lan egiteko modua ezagutzea nahi dugu, gu ezagutzea, eta proiektua aurrera eramateko jarri dugun mimo guztia jaso eta ikustea».

Eskubaloi eskola martxan, urtarriletik aurrera

Orain arte egindako lan guztiak urtarriletik aurrera fruituak ematea aurreikusten du eskubaloi taldeak: «2014ko urtarrilean martxan izango da Hernaniko Eskubaloi Eskola. Eskola Kirolaren osagai banatu ezina izatea izango da gure helburu nagusia, eta era berean, gure klubeko etorkizuneko jokalaria sortuko dira bertatik».

Azken asteetan Kiroldegira gerturatu diren jokalariei, esker hitzak

Eskubaloiak izan duen harreara azpimarratu nahi dute taldetik, eta bide batez, gogoratu eta eskerrak eman, ate irekiak medio, Kiroldegitik pasa diren jokalaria guztiei: «ate irekietako neska-mutil gehienek ez zituzten ezagutzen, baina pertsona guzti horiek kiroldegira ekarri izana esfortzu haundia izan da denontzat. Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei: Imanol Alvarez eta Martini, Bera Berako nesken taldeko eta Euskadiko selekzio absolutuko teknikoei; Susana Pozasi, Hernani eta Bera Berako jokalaria ohiari; David Rodriguez, Bidasoako jokalaria ohiari eta Europako txapelidunari; Julian Eskideri, Bidasoako jokalaria ohiari, eta azken honetako teknikoari; Carlos Guideri, Asobaleko epaile internazionalari; eta Nery Carla Albertori, palmarensen ikaragarria duen jokalaria, besteak beste, brontzea 2012ko olimpiadetan, eta 2011ko Brasilgo mundialetan». ■

◆ PELOTA

Alebinek txapelketa, ikasitakoa erakusteko

Hiru hilabete badira Hernaniko neska-mutil gazteak pelotan entrenatzen hasi zirela. Ikasitako guztia erakusteko garaia iritsi zaie orain, pelota txapelketa azkarrean. Atzo eta gaur ari dira jokatzen 20tik gora lagun, Kiroldegiko pelotalekuan. Txapelketa bukatzeko sari bana-keta antolatu dute, onenei saria eman, eta partehartzaile guztiei opariren bat banatzeko. 11:00etatik 12:00etara jokatuko da. ■

◆ PALA

Finalak gaur eta bihar, Hernaniko palistek

Aieko Zubimendi eta Endika Ramos bikoteak Lesakako Pala Txapelketako finala jokatuko dute gaur arratsaldean. Aurrean, Usurbilgo Loidi eta Olaizola izango dituzte; 17:00etan hasita.

Bihar, Emakumeen Nafar Palako finalak jokatuko dituzte Hernaniko hiru palistek. 1go mailan, Huizi eta M. Goikoetxea hermaniarrek neurtuko dituzte indarra. Huizik Eizagirre izango du bikote eta Goikoetxeak M. Mendizabal. Elite mailan, A. Irazustabarrenak eta A. Arrietak elkarrekin jokatuko dute, Muneta eta Contin nafarren kontra. ■

◆ ARRAUNA

Federazio Sariako azken estropada bihar, Elorrabin

Hernaniko arraunlari gazteak, alebin eta infantil mailakoak Federazio Saria ari dira jokatzen azken asteburuetan. Azken estropada bihar dute, Elorrabin, eguerdiko 11:00etatik aurrera. ■

◆ ERREMONTA

Urtasun eta Juaristi gaur, Banakako Masterrean estreinekoz

Banakako Master Txapelketako aurreneko partidua jokatuko dute gaur Galarretan Urtasun eta Juaristik. Urtasun da Banakako Txapelketako irabazlea, frontoi motzean; udan ere, erakutsi zuen frontoi luzean askok uste baino hobeto aritzen dela, Ezkurrari irabazi eta gero. Juaristi Kutxa Torneo finalerdietara sailkatu zen. Partidua 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarrena da. ■

IGERIKETA

Ehundik gora igerilari gaur, Hernani Sarian

Infantil, junior eta senior kategoriatan banatuta hartuko dute parte. Igerilekuan jokatu da, goizeko 09:30etan hasita.

GOGOTSU, duten onena emateko irrikaz dira Hernaniko igerilariak. Ez dute beti etxean Sariren bat jokatzeko aukera izaten, eta orain arte egindako lanaren fruituak erakustea dute helburu.

Hernaniko Sariaren 27garren edizioa jokatu da gaur Kiroldegian, 09:30etatik aurrera. Inguruko bost taldek hartuko dute parte: Buruntzaldeak, Ordiziak, Tolosaldeak, Zarautzek eta Hernanik berak. Ehundik gora igerilari elkartuko dira hortaz, Kiroldegiko igerilekuan.

Infantilek 50 metroko probak; junior eta seniorrek 100 metrokoak

Txapelketa hiru mailatan jokatu da: infantilak, juniorrak eta seniorrak. Infantiletako probak izango dira: 50 metro tximeleta, 50 metro bizkar, 50 metro bular, 50 metro libre eta 100 metro estiloak. Junior eta senior kategorietakoak berriz: 100 metro tximeleta, 100 metro bizkar, 100 metro bular, 100 metro libre eta 100 metro lau estiloak. ■



Inguruko bost taldek hartuko dute parte Hernaniko Sarian.

◆ TXANTXAGORRI

Compak Sporting txapelketa, gaur

Aurreneko aldiz, Compak Sporting txapelketa jokatu da bihar, Ehiza Federazioak Oartzunen duen instalazioan. Izen ematea bertan egingo da, 12 euroren truke, 09:00etatik 10:00etara. Txapelketa bukatuta, sari bana-keta lokalean bertan egingo da, 13:00etatik 14:00etara. ■

◆ SAN SILVESTRE

Izen ematea, irekita

San Silvestre lasterketa antolatu dute asteartean Wukroren alde. 18:00etatik aurrera izango dira maila ezberdinetako lasterketak; helduena, 4 kilometrokoa izango da, Plazatik aterata. Izena emateko www.kirolprobak.com, Pelotadenda eta Ibai Mendin, 6 euroan. Egunean bertan, 10 euroan. ■

◆ GIMNASIA ERRITMIKOA

Aurrebenjaminentzat izen ematea

2008an jaiotako neska mutileri zuzenduta gimnasia erritmiko saioak antolatu dituzte urtarillaren 7tik aurrera, Urumea-Gay Mur egoitzan. Motrizitate, gimnastika gaitasuna eta gorputz adierazpena landuko dituzte. Izena ematea, urtarillaren 7ra arte: hernani@hotmail.com. ■

Eskelak



SAGRARIO LASPEÑAS ZUÑIGA

(Ekaitz Ezkerra Laspeñas presoaren ama)

Besarkada bat

HERNANI ETA ASTIGARRAGAKO PRESO ETA IHESLARIEN SENIDEAK

Hernanin, 2013ko abenduaren 28an



† I URTEURRENA Sabina Alberro Etxeberria

ANDREA
2012ko abenduaren 25ean hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian Bego-

BERE FAMILIA

Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko 12:00etan, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko abenduaren 28an



† I URTEURRENA Jose Ugalde Perurena

-Goian Bego-

Urte bete badezu joan zinela hemendik baina gure bihotzean jarraitzen duzu oraindik ez dugu erreza izan horrela onartzerik noizbait elkartuko gara guztiok hala nahirik.

BERE SENDIAK

Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, goizeko 10:00etan, **Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko abenduaren 28an



† II URTEURRENA Maria Santa Kruz Oyarzabal

ANDREA
(Akola Baserrikoa)
(Nikolas Susperregiren alarguna)
2011ko abenduaren 28an hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Mundu honetan jaio ezkerog betirako ez gara.
Ama zu gaur bi urte aldatu zinen mundu honetatik bestera.
Bizi garen artean zurekin inoiz ahaztuko ez gara.
Orain zerutik zaindu gaitzazu aingeruekin batera.

ETXEKOAK

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, goizeko 10:00etan, **Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan egingo **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Ereñotzu, 14 - 3

Ereñotzun, 2013ko abenduaren 28an



III. urteurreneko meza, bihar, igandea, eguerdiko 12:00etan San Joan Bataiatzailearen parroki elizan. Aldez aurretik mila esker.

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

☎ TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
☒ FARMAZIAK ● Egumez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● GAUR Eguraldia zeharo aldatuko da. Euria eta hotza bueltatuko dira. Goizean noiznahi botako ditu zaparradak. Arratsaldetik aurrera, atertzera egingo du. Min.7° / Max.12°
● BIHAR Elur-maila 800 m inguruan egongo da goizaldean. Gainontzean, lainoak nagusituko dira eta zaparradak botako ditu. Batez ere, goizean. Min.4° / Max.10° (euskalmet)

L. KRONIKA



GURE
ESKU
DAGO

Elorrabiko zubi berria, sendoa eta modernoa

Maketa ikusgai dago Ave Marian. Obrak urte hasieran hasiko dira eta udazkenerako bukatuta izatea aurreikusten da.

UHOLDEEK eraman zuten Elorrabiko zubi zaharra eta Udalak eman ditu aurreneko pausuak berria eraikitzeko. Plenoak onartu zuen aurrekontua, eta diseinu edo maketa bukatua dago. Zubi berria txurria izango da, sendoa, moderno, forma aldetik naturarekin bat egiten duena, baina era berean, haustura dakarrena. Hankarik gabeko zubia izango da, Urumearen ur emari natu-

rala errespetatu eta uholdeak saihesteko aproposa.

Ikusgai, Ave Marian

Rafael Moneo arkitekto nafarrak diseinatutako zubia ikusgai dago Ave Marian. Kur-saaleko kuboak egiteagatik da ezaguna, besteak beste Moneo. Norantza bakarreko errepide baten zabalera izango du. Oinezkoentzako bidea izango da nagusi, eta bidegorria ere

izango du. Zubia ikusgai izango da urtarrilaren 7ra bitartean. Lanak ere urte hasieran hasiko dituzte eta udazkenerako bukatzea aurreikusten da.

Turistikoki erakargarria

Praktikotasunari bakarrik ez, diseinuari ere, garrantzia eman diote. Zubiak turistak erakartzea bilatzen du, Buruntzaldeako Turismo Planari puntu berezia emanaz. ||



IRAGARKI MERKEAK

- 2 gelako etxebizitza salgai. Dena eraberritua, kalefakzioa, 2 balkoieta zerbitzu guztiak eskura. Modu onean. Deitu: 635 758 661
- Etxe unifamiliarra salgai, 160 m2 + 250 m2 lorategi + 90 m2 terraza, trastelekua, txokoa, garajea, 2 solairu. Deitu: 699 49 22 35 (partikularra)
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

KARABEL
HERNANI

Berri

2 logela
egongela
sukaldea, komuna
terraza handiak

178.000€ tik
193.000€ ra

3 logela
egongela
sukaldea, 2 komun
terraza handiak

224.000€ tik
246.500€ ra

943 445630

Etxebizitza kontzertatuak

Salmenta bulegoa
Victor Hugo, 5
20014 Donostia

www.oraune.com
ventas@oraune.com